KIROL-TEKNIKARIEN ESKOLA ASFEDEBI KIIB
CENTRO AUTORIZADO DE ENSEÑANZAS DEPORTIVAS
Nº CÓDIGO CENTRO: 48019390

# ESKOLA-KIROLEKO MONITORE LAGUNTZAILEAREN IKASTARO OFIZIALA
# 23. DEIALDIA

***(1. MAILAKO ENTRENATZAILE IKASTAROKO BLOKE KOMUNAREN BALIOKIDEA)***

ESKOLA-KIROLEAN MONITORE LAGUNTZAILE-LANAK EGIN AHAL IZATEKO ADIERAZITAKO IKASTARO OFIZIALA. 60 ORDUKO ONLINE PRESTAKUNTZA-IKASTARO BAT DA, KIROL PORTAERAREN OINARRIEI, LEHEN SOROSPENEI, GORPUTZ JARDUERA EGOKITUA ETA EZGAITASUNA, KIROL-ANTOLAMENDUARI BURUZKO EDUKIEKIN ETA ADINGABEAREN.

PRESTAKUNTZA-ESKAINTZA HONETAN ADINGABEA ZAINTZEKO ETA BABESTEKO SENTSIBILIZAZIO-IKASTAROA SARTZEN DA (4 ORDUKO IRAUPENA DU), ORAINDIK EGIN GABE DAUDEN PERTSONENTZAT.

**(SARTZEKO BALDINTZAK: 16 URTE IZATEA + DBH ZIURTAGIRIA EDO BALIOKIDEA)**

**JARDUERA MOTA:** Online-ko formakuntza. **HIZKUNTZA:** Euskara / Gaztelania.

**HARTZAILEAK:** Prestakuntza ofizial gabeko eskola-kiroleko teknikariak. Kiroleko prestakuntza profesionala hasteko interesa duten pertsonak.

**IZEN-EMATEAK:** 2025eko **irailaren 5etik irailaren 12ra arte** biak (barne). (Izena emateko dokumentazio guztia adierazitako epearen barruan bidali behar da.)

**Email bitartez aurkeztu beharrezko dokumentazioa, 5 dokumentu PDF formatuan (ez da argazkirik edo bestelakorik onartuko):**

1. Izen emate orria. (deskargatu)
2. Baimen informatua. (deskargatu adinez nagusiak ) (deskargatu 18 urtetik beherakoak)
3. NANaren fotokopia bi aldeetatik.
4. DBH gainditu izanaren ziurtagiria edo baliokideak. QR kodea (IKASGUNEA) duen ziurtagiririk izan ezean, aurkezten den dokumentua konpultsatua izan beharko da.
5. Adingabearen Sentsibilizazio eta Babes ikastaroaren diploma, aurretik eginda bada. Halakorik izan ezean, ikastaroan bertan egingo da.

**Ikastetxeak aurreko dokumentazioa konparatu arte, EZ da hurrengoa bidaliko:**

Matrikula ordaindu izanaren **ordainagiria.**

**GARRANTZITSUA:** Nahitaezkoa da DBH gainditu izanaren ziurtagiria edo QR kodea duten baliokideak **(Ikasgunea)** aurkeztea. QR ziurtagiria ez izatekotan, aurkeztu beharreko titulazio akademikoak behar bezala konpultsatuta egon behar dira. (Konpultsa egiteko moduak: administrazio publikoak, Kirolaren Euskal Eskola, udalak, notarioak...).

**SARBIDE FROGAREN EGUNA ETA ORDUA:** 2025eko **irailaren 18an** (osteguna), 16:00etatik 18:00etara. (IKUS ERANSKINA). **Izena emateko dokumentazioa egin eta aurkeztu ondoren esleituko da ordu zehatza.**

**ON-LINE IKASTAROAREN HASIERA:** 2025eko **irailaren 19an** (ostirala). Ikasleak mezu elektroniko bat jasoko du ikasturtearen hasieran, plataformara sartzeko.

**OHIKO AZTERKETA:** 2025eko **urriaren 27an** (astelehena), 17:00etatik 19:00etara.

**EZOHIKO AZTERKETA** (ohiko deialdian gainditu ez diren moduluak): 2025eko **abenduaren 1an (astelehena) 17:00etatik 19:00etara.**

**SARBIDE PROBA ETA AZTERKETA PRESENTZIALAK EGITEKO HELBIDEA:** Kirol Etxea, Martin Barua Picaza kalea 27, Behea, 48003 Bilbao.

**NAHITAEZKOA: DOKUMENTU GUZTIAK (4+1) EMAIL BEREAN BIDALTZEA. GEHITU KONTZEPTU GISA IKASLEAREN IZENA ETA ABIZENA. AHOLKUA: EMAIL BERDINA ERABILTZEA, HAU DA, IKASLEARENA BERA, NAHASTEAK SAIHESTEKO.**

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROA.** gutxienez %60ko diru-laguntza ematen du amaitutako eta gainditutako ikastur bakoitzeko, %15a gehituko da ikastaroa euskaraz egiten bada. **2025-2026ko kirol prestakuntza gainditu duten kirol teknikarientzako bekak*.*

**MATRIKULA OSOAREN PREZIOA: 95€ (90€ ikastaroa + 5€ sarbide-probetarako plaza erreserbatzeagatik).** Ikastetxeak ikastaroan izena emate baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, ASFEBEDI-KITEBen kontu zenbaki honetan ordainduko da: **ES70-2095-0360-10-9117551 (Kutxabank). NAHITAEZKOA DA IZEN-ABIZENAK ETA EKML KONTZEPTUAN ADIERAZTEA.**

- Adingabearen sentsibilizazio- eta babes-ikastaroa eginda izanez gero, bidali diploma posta elektronikoz. Kasu horretan, matrikularen azken prezioa **85 €**-koa izango da.

**Matrikula egiteko behar den dokumentazio guztia honako helbide honetara bidali: monitoreak@asfedebi.eus**

**ORDUTEGIA:** astelehenetik ostegunera 9:30-18:30 eta ostiraletan 9:30etatik 14:30etara. Udan (ekaina-uztaila-abuztua) 9:00-15:00.
**HELBIDEA:** CAED KIROL-TEKNIKARIEN ESKOLA ASFEDEBI KIIB (Martin Barua Picaza zk. 27, behea, 48003 Bilbo (Bizkaia).
**PLAZA KOPURUA:** 120 (30 pertsona talde bakoitzean).

**OHAR GARRANTZITSUA:** Pertsona baten izen-ematea ezarritako epean eta moduan jakinarazi ondoren, INOIZ EZ DA ITZULIKO KONTZEPTU HORRENGA ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA, nahiz eta ondoren matrikula baliogabetzea eskatu edo sarbide-proban ezin izan den parte hartu. Hala ere, ezinbest arrazoiengatik justifikatutako kasuetan (KITEBen iritziz egiaztapen fede-emailea nahikoa beharrezkoa izanik), dagokion ikasleari plaza bat gordeko zaio ikastu bereko hurrengo deialdian, eta kasu horretan ez du matrikularik ordaindu beharrik izango. Matrikula-eskaera baliogabetzea justifikatutako ezinbesteko arrazoi batengatik gertatzen ez den gainerako kasu guztietan, azkenean bertaratu ez den ikasturte bera egin nahi duen ikasleak 25 € ordaindu beharko ditu zigor gisa, plaza bakarra gordeko zaio parte hartu ez duen ikasturtearen ondorengo hurrengo deialdirako. Ikastaro hori amaitutakoan, matrikula osoa ordaindu beharko du

## ERANSKINA SARRERA FROGAK
## (Prestakuntza-plana: BOE-A-2013-3262)

**Berariazko baldintzak:**
Frogak bi ariketa ditu, instalazio espezifikoan, oinarrizko kolpaketa teknika erabiliz, joko-tresnen gutxieneko nagusitasuna erakusketa. Ezinbestek da 2 ariketak gainditzea gai izateko.

**Sarrera-probaren egitura:**

**- Lehenengo Proba: Jaurtiketa eta itzulketa menderatzea**
Probaren garapena: izangaiak pilota frontisaren aurka bota eta frontisaren aurka itzultzen du, posizio beretik jotzen, edozein beso erabiliz. Ikasle fronteniseko erraketa erabiliko du.

**- Bigarren Proba: Piloteoaren menderatzea**
Probaren garapena: Piloteoa frontisaren aurka, edozein beso erabiliz. Ikasleak fronteniseko erraketa erabiliko du.

Izena emateko prozesuarekin lotutako zalantzak/kontsultak:
Tel. 944037800 edo posta: monitoreak@asfedebi.eus

**WWW.ASFEDEBI.EUS**

ASFEDEBI Bizkaiko Kirol Federakundeen Elkartea Asociación de Federaciones Deportivas de Bizkaia — Kirol eskola Kiroletik hazi eta ikasi — Bizkaia foru aldundia diputación foral

**NAHITAEZKOA: DOKUMENTU GUZTIAK (4+1) EMAIL BEREAN BIDALTZEA. GEHITU KONTZEPTU GISA IKASLEAREN IZENA ETA ABIZENA. AHOLKUA: EMAIL BERDINA ERABILTZEA, HAU DA, IKASLEARENA BERA, NAHASTEAK SAIHESTEKO.**